

LABURREAN

BILBO

Arriaga antzokiko sarrerak Internet bidez be erosi ahal dira, web orrialdearen bitartez

Bilboko Arriaga antzokiko sarrerak Internet bidez be erosi ahal izango dira aurrerantzean, web orrialdearen bitartez: www.teatroarriaga.com. Teknologia barriak ipini ditue martxan Arriagan be, eta sistema horren bitartez ikuskizun guztietarako sarrerea edozein lekutatik erreserbau leike. 2003ko egitarauari begira, adibidez, lehenengo sei hilabeteko ekitaldietarako 11.000 sarrera saldu ditu dagoeneko.

'Euskal selekzioa, noizko?' berbaldia gaur, Errekaldeko Gabriel Aresti eskolan

Euskal selekzioa, noizko? izenburupean, berbaldia emongo dabe gaur arratsaldean Bilbon, Errekaldeko Gabriel Aresti eskolan. Patxi Xavier Fernandez Athleticeko prentsa arduradunak, Ritxi Mendiguren ESAITeko kide eta Athleticeko jokalaria ohiak, Imanol Agirre pelotariak eta Paua Kabiedes futbol jokalaria egingo dabe berba, 19:30etik aurrera.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

ALKARRIZKETEA. Maria Esther Solabarrieta Ingurumen diputauak atzo goizean egin eban berba Guillermo Bañales Willy eta Angel Navasegaz.

Izaskun Basterretxea |

Antartikoko basamortu zurian

HEGO POLOKO ESPEDIZINOA. Gorputzez zein animoz ondo dagoz Hego Poloan dagozan euskaldunak, eta ziur asko Errege Egunerako ailegauko dira goreneko puntura

14an ipini zituen han, Willyk eta Josu Feijook.

Hotza eta haizea

Ipar Polora ailegau ostean hasi ziran Hego Polora joateko bidaia gerteten, eta han dira, bidean. Etsairik handienak hotza eta haizea dirala nabarmendu eban atzo telefonoz, baina dana dala, gustora, pozik dabilzala igarri jaken berbaldian, eta gorputzez zein animoz ondo dagozala azpimarratu eban.

«Egun on, Willy», esanez hasi eban alkarrizketea Solabarrietak. «Egun on, Maria Esther», erantzun eutsen Willyk. «Zelan?». «Ederto gagoz, baina haizeak gogor jotzen dau, eta benetan indartsu jotzen dauen leku baten gagoz orain. Baina ikuspegia be zoragarria da, Phils mendiak daukaguz pare-parean eta koloreen tonoa be liluragarria da... Atzo eguraldi ikusga-

rria egin eban, orain arteko egunik ederrena. Baina, beno, hemen haizea da txarrena». «Zenbateko indarragaz jotzen dau ba?». «50 bat kilometro orduko indarragaz, baina hemen egiten dauen hotzagaz, handiagoa da haizeak sortzen dauen mina». «Zenbateko tenperatura egiten dau, ba?». «Orain, 20 bat gradu zero azpitik...»

Agurtu ostean, Willyk Angel Navasi emon eutsen telefonoa, eta orain arteko martxan jarraitzen badabe, Errege Egunerako ailegauko dirala azaldu eban Navasek. «607 kilometro inguru egin doguz, eta 515 kilometro geratzen jakuz, lerro zuzenean; eta batenaz beste, 20 bat kilometro egiten doguz egunean». «Noizko ailegauko zarie?». «Errege Egunerako edo». «Zenbat zoaze bidean?». «Sei lagun: Willy eta ni, ingeles bigaz eta frantses bigaz alkartu gara eta».

«Eta laster Josu Feijoo be batu-ko jatzue, ezta?». «Bai, hola da, hemendik egun gitxi barru».

Gorputzez zein animoz ondo dagozala nabarmendu eban. «Ondo-ondo gagoz», esan eban Navasek. «Gorabeherarik izan dozue?». «Ez berezirik ez, baina gugaz dagoen gazte batek, esaterako, gorputzez ondo egon arren, arazo psikologikoak izan ditu, eta animoak emon behar izan deusaguz... Jausi be egin gara inoiz, baina, beno, osterantzean ondo gagoz, gorputzez zein animoz».

Nahiko alkarrizketa luzea izan zan, eta ederto entzuten zan ganera, ia eten barik. Eta horren ganeko galderea be egin eutsien. «Arazo teknikorik izan dozue?». «Ez. Euskaltelen telefonoa ondo dabil. Ahalegin handia egin dabe, eta ondo dabil. Eguzki izpien indarra hartzeko plakak be ondo dabilz, ETBren kamarea...»

Gabonak ganean dirala eta, ia ezer berezirik eroan daben galdetu eutsien Solabarrietak. «Zegaz ospatuko dozue, esaterako, ailegerea?». «Lerea guk geuk eroan behar dogunez, ondo neurtu behar dogu pisua eta ospakizun nagusia etxera itzulita-koan egingo dogu...»

Berbaldia amaitu baino arinago Hego Polotik ura ekartea ez ahazteko eskatu eutsen Solabarrietak. «Agur eta mosuak».

CB CANAL BIZKAIA

Bizkaiko Telebista

ABENDUA 12 OSTEGUNA

07:40	DOCUMENTAL: "VETE ENTERÁNDOTE"
08:05	TRANSFORMERS
08:30	BIZKAIA GOIZEAN
10:00	MAGACÍN: "QUEDAMOS A LAS 7"(R)
11:00	MAGACÍN: "TAQUICARDIA" (R)
11:30	SERIE: (Cap 64) "ENTRE DOS FUEGOS"
12:00	TELENOVELA: (Cap 62) "LA INTRUSA"
13:00	ELLA JARDÍN
13:30	LA COCINA DE LOCALIA
14:00	BIZKAIA GAUR 1ª EDICIÓN
14:40	SORTE ON BIZKAIA
15:00	NOTICIAS LOCALIA
15:30	MAGACÍN: "CADA TARDE"
17:00	MAGACÍN: "TAQUICARDIA"
17:30	HECHO POR ELLA
18:00	TELENOVELA: (Cap 30) "MARIA BELÉN"
19:00	MAGACÍN: "QUEDAMOS A LAS 7"
20:00	LAS CHICAS DE ORO: "La bella y la bestia"
20:30	BIZKAIA GAUR 2ª EDICIÓN
21:05	NOTICIAS LOCALIA
21:30	MAGACÍN: "LO QUE QUEDA DEL DÍA"
22:45	EZBAIKA
23:30	VELADA BOXEO
01:00	PISTAS BLANCAS
01:30	MAGACÍN: "LO QUE QUEDA DEL DÍA"(R)
02:00	40 TV. CANAL MUSICAL